Karga misteriotsuen pisuari eusten dioten animaliak

JON MIKEL EUBA

2021eko maiatzaren 22a - uztailaren 30a

CarrerasMugica

Zuzendutako hutsalkeria
Barthesek esaten zuen, idaztean, bururatzen zitza ion lehenengo diskurtsoa hutsala izaten zela eta jatorrizko hutsalkeria horren aurka borrokatuta baino ezin zuela idatzi, pixkanaka. Diskurtso inbestitu bat, zeinean gorputza agertuko baita. Azkenean, *zuzendutako* hutsalkeria litzateke ida tzitakoa. Haren ustez, hutsalkeria gorputzik gabeko diskurtsoa da. CarrerasMugicako erakusketa hau denbora luzez zuzendutako proposamena da, eta estrategia desberdinen bidez norberaren gorputza sartzea du xede, gertakari berri bat lortzeko asmoz.

Egin daitekeena (espazio batean)
Gizakiak espazioaz eta distantziaz izaten duen pertzepzioa, Edward T. Hall-en esanetan, ez da estatikoa, eta zerikusi txikia du ikuspegi bakarreko perspektiba linealarekin, zeina Errenazimenduko artistek sortu zuten. Hallek planteatzen duena da gizakiak gainerako animaliek bezala hautematen duela distantzia, hau da, modu dinamikoan. Distantzia ekintzari lotuta dagoelako gertatzen da hau, toki jakin batean egin ahal denari lotuta, eta ez pasiboki begiratuz ikusi ahal denari. Christopher Alexander-ek ere antzeko zerbait esaten zuen, ekintza eta espazioa zatiezinak zirela, alegia, eta proposatu zuen "biek batasun bat eratzen dutela, gertakarien patroi bat espazioan". Gogoeta hori funtsezkoa izan da egin ditudan azkenengo lanetan. CarrerasMugican arkitekturako esku-hartze txiki bat eginez —altzarietako elementu bat mugitzea besterik ez—, galeriako espazioa eraldatu egiten da, normalean hiriko espazio publikotik bananduta egoten baita espazio hori, baina, esku-hartzearen ondorioz, bi areto nagusietara ibilgailuak sartzeko eta ibiltzeko aukera legoke.

Egin ezin dena: hutsalkeria, kapritxoa? Auto bat=autoentzat
2014an jaso nuen argazki batean auto bat ageri zen lokal baten barruan aparkatuta; handik gutxira, CarrerasMugica galeria izango zen lokal hura. Autoaren presentziak eskala arkitektoniko desberdina sartzen zuen espazioan, lokala zertarako eraiki zen gogorarazten zuen. Argazki hori ikusi nuenean, autoak erabiliz erakusketa bat sortzeko aukera zegoela pentsatu nuen. Ideia baztertu egin nuen, ordea, kapritxo bat zelakoan. Gaur egun, oraindik ere ideia hori dut buruan, beraz, beharbada ez da kapritxo hutsa zazpi urtez iraun duen asmoa bada; litekeena da urte horiek guztiak igaro ondoren beste zerbait izatea. Autoarekin ibili egin daiteke edo erakusketa ikus daiteke autoko argiekin argituz; baina bada interesatzen zaidan beste alderdi bat ere: diseinu arkitektoniko jakin bateko barrualdeanautoan mugitzeak dituen mugak interesatzen zaizkit.

Prest: programa eta estrategia
Erakusketa hau bi kontzeptuak artikulatuz prestatu da. Edgar Morin-ek *Introduction à la pensée complexe* (*Pentsamendu konplexuaren hastapenak*) lanean esaten duen bezala, "Argi dago programak zer abantaila duen: ekonomia handia: ez dago hausnartu beharrik, dena automatismoen bidez egiten da. Estrategia bat zehazteko, aldiz, ausazko egoera bat izan behar da kontuan, aurkako elementuak eta pertsonak ere bai, eta eraldatu egiten da prozesuan jasotako informazioen arabera; ondorioz, plastikotasun handia izan dezake. Baina estrategia bat antolakuntza batek egin behar badu, antolakuntza hori ezin da sortu programazioari men egiteko, baizik eta gai izan behar da estrategia egiten eta garatzen laguntzeko gauza diren elementuak tratatzeko". CarrerasMugicako erakusketarako estrategia izan da premisak (programak) instrumentalizatzea, koartada gisa erabiliz.

Koartada-kopuru jakin bat
Koartada esan izan ohi zaio norbaitek gertakari baten unean beste toki batean zegoela justifikatzeko erabiltzen duen argudioari. Erakusketa bat osatzerakoan, beste balizko toki batean kokatzeko modu teknikoa da koartada; deskokatzea, azkenean bertan agertzeko asmoz. Koartadari esker gertakariak zuzentzen dituena beste bat dela sentitzen duzu, beraz, *zuzendaritza* horren zerbitzura jartzea da kontua. Erakusketa hau koartadez eratutako sistema baten emaitza da, non zailena aukera amaigabeak (formalak, posizionalak, exekutiboak, erlazionalak) mugatzen dituzten aitzakiak asmatzea izan den. Eta horren ondorioz, borroka berezi ugarik zentzua har dezakete, konbentzio ororen inertzietan ezkutatuta egoten diren hertsadura ugaritatik askatzean.

Karga misteriotsuen pisuari eusten dioten animaliak
Haurra nintzela esan zidatenez, garai batean mendi-hegalean ibiltzeko moduko bide bat egin nahi bazen, asto bat pisu handiarekin kargatu eta gailur aldera bidaltzen zuten. Astoak erabat ekonomizatu izan du beti inbertitutako energia eta, ondorioz, malda ahalik eta horizontalenak deskribatuko ditu beti, eta, sigi-sagan, gailurrera eramango du, jasandako kargari dagokionez ahalik eta ahalegin txikiena eginez. Animaliak bidea definitu ondoren, gizakiek erabiltzeko egokitzen zen, zabaldu egiten zen, *pista* delakoak egiten ziren. "Forma" hori —sigi-saga doan bidea— ekuazio baten emaitza da eta elementu hauek ditu: 1. Aurrez dagoen oztopo bat: mendi-hegala; 2. Nahi edo helburu bat: malda igotzea; 3. Neurtzeko eta kalkulatzeko tresna bat: astoa, "energia aurreztu" premisa berekin duena; eta amaitzeko, 4. Ekuazioari beste zerbait erantsi behar zaio: karga.
Prozesu artistikoan antzera gertatzen da, azkenean forma agertzeko —dela sigi-saga, dela mendi-hegala, zeinaren maldaren eta garaieraren arrastorik ez dugun gora iritsi arte—, intuitiboki jakiten dugu soilik egitura bat ahalik eta gehien kargatu behar dugula, material Erreal, Ideal eta Bital ugarirekin, horien guztien pisuak eta energia aurrezteko animaliaren premisak, bidea sor dezaten. Bide horrek, ibiliaren ibiliz, adieraziko digu hegalaren zabalera zenbatekoa den eta amaierara iristean (iristen bagara) forma erakutsiko digu —sigi-saga eta mendiaren garaiera—. Astoak egiten duen bezala, aitzakiak sortu beharko dira, azenarioren bat jarri aurrean, gure baitan dugun animalia norabide jakin batera eramango duen apeua. Prozesu artistikoaren ezaugarria da gu geu garela astoa, hegala, karga, pista eta azenarioa. Aurrekoa betetzen bada, egiturak edo estrategiak forma eman diezaguke, baina inolako formak ez digu zentzua ziurtatzen berez, hau beti beste toki batean egongo baita, inkognitaren eta motibazioaren konplexutasunaren arabera, eta gure ekintzaren benetako beharrean parte hartzen duten faktoreak uztartzeko moduaren arabera ere bai.

Kanpo-digestioa. Erakusketa
Erakusketa bat, dagoeneko amaituta dauden lanak erakusteko lekua izateaz gain, lanean darabilgun materiala publikoki eta kanpotik digeritzeko prozesuak bizkortzeko aparatua ere izan daiteke. Armiarma batzuek, urdailik ez dutenez, pozoiarekin paralizatzen dituzte harrapakinak, eta digestio-zukuak injektatzen dizkiete, horrela animaliaren kanpoko digestioa eragiten dute bere tegumentuen barruan, eta, ondoren, sortzen den ahia hurrupatzen dute. Era berean, erakusketa hau ere digestio bat da, denen bistan egiten den hausnar luzea, non galeriako hiru aretoetako bakoitza bat datorren urdaileko zatiekin; ekoizpenerako tokia da, *erakusketa ideiatik* ihes egin nahi duena, erakusketa bera ekoizteko.

Gauzatzen den potentzialtasuna. Misterioei irekitako muturreko arrazionaltasuna
Misterio bat: West kaxa. Hainbat premisa gurutzatuz, erabakiak hartzea eragingo duten sistemak sortu. Kontingentea determinante bihurtzeko moduak asmatu. Erakusketa bat sortu egun-kopuru finko batean, leku espezifiko batean, azken batean erabakitzera behartzen nauten ezaugarriak dituzten material batzuekin lan eginez. Adibidez: giza eskalako pieza herdoilgaitz bat, L formakoa eta kanpoko aurpegia leundua duena, eta, beraz, islatzailea, beste pieza berdin-berdin bati lotuko zaio, baina aurpegia barnealdean leunduta duela. Elkarrekin osotasun bat sortu behar lukete. Piezek ez dute elkar ikusiko galeriara iritsi arte; bata Vienatik etorriko da eta bestea hemen egongo da zain. Osotasuna sortzeko, ezinbestekoa izango da elkarrengana gerturatzean islatzen dutena; ezinbestekoak izango dira, halaber, hormara finkatzeko aurrez egindako zuloek eragindako kokapen-arloko mugak ere. Ariketa honen xedea da elementu mugatzaile kontzeptualak eta fisikoak sartzea, balizko norabideak mugatzen dituztenak. Aipatutakoak bezalako bi muga (*isla* eta *zuloak*) horien ondorioz, eta, orobat, horman finkatu eta osotasun bat konfiguratu beharraren ondorioz, lortu nahi den *noranzkoak* markatutako norabidea edo *norabideak* bat etorraraztea, egokitzea (edo aurkakoa egitea) izango da nire lana.

29 Baldintza inposizio baterako
Testu bat: 2017an gonbidatu ninduten beren ogibideagatik idatzi beharra zuten pertsonentzako kritika- eta idazketa-tailer batera, eta oinarrizko gaiei buruzko galdera batzuk prestatu nituen, idazteko ekintzan aldi berean agertzen diren alderdi guztiei buruz hausnartu ahal izateko. Gero, argitaratzeko gonbidapena jaso nuen, eta testu zabalago bat egin nuen ezinbestez, gaiari berriro heldu eta galdera bakoitzarekin ikuspuntua aldatuz; gaiaren alderdi desberdinak jorratzen saiatu nintzen. Orduan ohartu nintzen material hura are zehatzago garatzeko aukera zegoela. Horren guztiaren ondorioz sortu zen testu hau: *29 Baldintza inposizio baterako. Idazketaren agindura jartzen den gorputz bat antolatzeko.*
Ekintza bat: Handik urtebetera, testu gisa eskari handiegia egiten zuela ohartu nintzen eta ekintza bihurtu nuen. Entzuteko ariketa bat zen: negatiboan egindako autorretratu moduko bat zen, norbere burua hautemateko ariketa bikoitza. Hasteko, beharrezkoa izan zen galderaz galdera gorputz jakin bat —neurea— zedarritzea eta ondoren okupatzen zuen tokitik kentzea eta beste edozein gorputzi uztea han sartzen. Hori guztia, partikularizazio-mugimendu horrek entzuten zuenari bere gorputzak idaztean zuen irudikapen bat emango ziolakoan.
Instalazio bat: 2020an, *Cybernetics of the Poor* (Tabakalera, Donostia; Kunsthalle Wien, Viena) erakusketa zela-eta, ekintza hartuko zuen erakusketa-gailu autonomo bat konfiguratzea erabaki nuen. Testuaren hasierako definizioan zetorren esaldiaren ondorioz -"*hasteko, gorputz jakin bat —neurea— zedarritzea, ondoren okupatzen zuen tokitik kentzea eta beste edozein gorputzi uztea han sartzen*"-, sortu nituen orain CarrerasMugican aurkeztu diren elementu eskultorikoak.

Zutik dagoenaren atzean, etzanda dagoena: 29 Baldintzaren altxaera, elebazioa. Dena bikoitza, dena hormara
29 Baldintza performancea baliagarria izan zen berariazko gailu espositibo bat konfiguratzeko zoruari lotuta (horizontala eta apur bat plano inklinatuak) —"zoruak bueltan nahi zaitu" ere izan zezakeen izenburua—, zeinean ikusleak etzan zitezkeen maila desberdinetan zorua okupatzen zuten eskulturen gainean, tartean edo barruan. CarrerasMugicako proposamena altxaera bat egitea da, haietako bat bertikalean (zutik) jartzea, baina horman eta hormaren kontra, plano inklinatuetan gorputzek duten portaerari buruzko lana jarraitzen dudan bitartean. *29 Baldintza* proiektuan egitura orokorra gailendu egiten zitzaien bera osatzen zuten zatiei; hemengo planteamendua, aitzitik, atal bakoitza bere definizio indibidual gorenera eramatea da, singulartasunak eratu arte. Proiektuak errekurtsibitate-maila handia duenez, emaitzak amildegira eraman gaitzake. Erakusketak galeriako hiru espazioak hartzen ditu eta hiru dimentsioko piezak daude, batez ere; estrusio- eta toleste-prozesuen bidez material bidimentsional bati aplikatutako eskultura-hurbilketatik sortutakoak. Eskultura hauek bitartekaritzarako prototipo diferentziatuak dira, *29 Baldintza erakusketa baterako* proiektua aurkeztu den toki bakoitzerako sortuak, eta *400 mugimendu aurreikus daitekeena saihesteko* bideo-instalazioaren inguruan artikulatzen dira.

400 mugimendu aurreikus daitekeena saihesteko
Lan honek bi bideo-proiektagailuren bidez erakutsitako irudi-sekuentzia bera erakusten du. Ezkerraldean dagoen proiektoreak, posizio horizontalean, sekuentzia osoa erakusten du; aldiz, ondoan, bere eskuinaldean dagoen beste bat 90 gradu biratuta dago, sekuentzia bera proiektatuz baina irudia iraulita. Irudi-pareen konfrontazioan, laxotik zurrunera, bigunetik solidora, igarotzen den prozesuak erakusten dira; gorputzaren mugikortasuna mugatzeko eta murrizteko prozesuak, gorputza funtzio batera egokitzean sortzen den jarduera batek baldintzatutako jarreren irudiak. [Gorputz-makinak, gorputz ez-aktiboak (ekoizpen-espazioetan etzanda, lurrean, mahai, kutxa eta eskulturen gainean edo ondoan); giza gorputz aktiboak (lurrean lanean, lau hankatan; beste gorputz batzuek manipulatutako giza gorputzak); objektuen bidez elkarri konektatutako gorputzen irudiak; auto-ezarpeneko, auto-antolamenduko elementuen irudiak (jantziak); mugikortasuna kendu zaien gorputzen irudiak (zepoak, tranpak)].

Objektualizazioa eta objekzioa. Kontraesan bat. Instalazio honetan proiektorea fisikoki irauliz biratzen da irudia (koadro bat biratzen dugunean gertatzen den bezala), dagokion kokapena —zeinetatik edo zeinetarako ekoitzi baita— aldatzen zaionean, unitatea des-

muntatu egiten da pixka bat irudikatutakoa sortzen duten elementuetan. Ezkerreko proiekzioa arau nagusi gisa sortu da, eskuinean proiektatuta duenarekin (ustez mendekoa denarekin) alderatuz gero. Mendeko irudi horrek nagusiaren aldagai gisa funtzionatzen du. Instalazio honetan gertakaria sortzen da irudi-pareak aldi berean eta elkarren segidan muntatzean. Ezkerreko proiekzioan irudia *konformatzen* denean, bere ondoan irudi bera biratuta aurkeztean, irudia bera *objektatzen* da (objektualizazio eta objekzio zentzu bikoitzarekin). Irudi batek forma ematen badio, besteak forma kentzen dio; ezkerrekoak berresten badu, irudi berak, biratuta, kontra egiten du; ezkerrekoak baietz badio, eskuina ez dator bat; ezkerrak baieztatzen duena, besteak ezeztatzen du; ezkerrekoak esaten badu, irudi berak, alderantzikatuta, kontrakoa esaten du. Kasu batzuetan ezkerrak esaten du eta eskuinak atzera egiten du. Eta ñabardura horiek guztiak irudikatuta ageri denaren mende ere badaude, eta kontraesan horrek eragiteko moduaren mende ere bai.

Titulatu beharreko gauza bat. Aitortzeko beste bat: testu bat, ez aretoko orri bat

"Eta denbora-tarte horretan hamar bat gauza besterik ez dut egiteko:—gauza bat titulatu,—beste batez damutu, —beste bat espero,—beste bat agindu eta beste batekin mehatxatu,—beste bat suposatu,—beste bat aitortu,—beste bat ezkutatu,—beste bat hautatu eta beste batengatik otoitz egin". Laurence Sterne. *Life and Opinion of Tristan Shandy, Gentleman.*

Irakurtzen ari zaren hau idazten ari naizen bitartean, oraindik prestatzen ari naiz obrak eta erakusketa definituko dituzten gertakariak sortuko dituzten baldintzak. Dena ia erabakita dago eta, aldi berean, dena egiteko dago. Erakusketa honetarako hainbat izenburu ditut buruan, eta bat hautatzeko zailtasunak ditudanez, aukera ematen zuten horiek garatu eta paragrafo bihurtu ditut, eta gainerakoak testuan kamuflatu ditut, ehiza gustuko dutenen gozamenerako. Paper batean idatzi dut orain idazten ari naizen hau testu bat dela, ez "aretoko orri" bat. Nahiz eta testu hau seguru asko materializatu egingo den (mailarik oinarrizkoenean) orri batean eta aretoan bukatuko den. Ez nahasteko. Neure burua ez nahasteko.

Jon Mikel Euba. Bilbo. 2021eko maiatza.

Jon Mikel Euba (Amorebieta 1967). Bilboko Arte Ederren Fakultatean ikasi zuen eta Artelekun (Donostia) jarraitu zuen prestakuntzarekin 1992. eta 1995. urteen artean. Bere lanak marrazketa du oinarri prozedura gisa eta eskultura programa modura, eta hainbat bitartekoz baliatzen da. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik praktika bat garatu du, ekoizpen-sistema propioak sortzeko beharrak gidatuta "teknika ekonomiko" baten bidez. Bilaketa bat, erresistentzia-modu bat ere badena, eta berekin dakarrena prozesuetan murgiltzea, beste pertsona batzuk inplikatuta eta artistak bitartekari edo iragazki gisa funtzionatzen duela. 2006tik aurrera, izaera performatiboa duten lan batzuk egin ditu, eta horien emaitza performanceen seriean biltzen da, zeinetan planteamendu didaktiko bat sartzen baitu lankide dituen parte-hartzaileentzat. 2010ean, Primer Proforma 2010 proiektu pedagogiko esperimentala sortu zuen, Txomin Badiola eta Sergio Pregorekin batera, Leongo Musac-en. 2015ean, Itziar Okariz, Asier Mendizabal eta Sergio Prego artistekin batera, Kalostra *eskola-proiektua gauzatu zuen Donostian.* Action Unites, Words Divide (On Praxis, An Unstated Theory) *masterreko zuzendaria izan da Arnhem hiriko Dutch Art Institute-n 2014-2017 artean. Era berean, 2006tik aurrera, idazketan ardaztutako proiektu bat garatzen ari da, teoria teknikoa sortzen duen praxi bat definitzea helburu duena, artearen* praxiologia *baten oinarriak sortu nahi baititu, idazketaren bidez praktikaren inguruan hausnartzeko. Prozesu horren abiaburuan,* taxonomia *bat aplikatzen du; izan ere, ekoizpen artistikoaren alderdiak zatika banatzen ditu, ekintza konplexua den heinean, eta horren helburua da, lehenik eta behin, beste ikuspegi batetik ulertzea, eta, ondoren, hura transmititzea, beste pertsona batzuek berriro egin ahal izan dezaten bere konplexutasun osoan. 2017an* Writing Out Loud *argitaratu zuen. Bere obra hainbat bildumatan jasota dago, esaterako, Madrilgo Reina Sofía museoan, Bartzelonako MACBAn, Leóngo MUSACen, Luxemburgeko MUDAMen, Frantziako FRAC Poitou-Charentesen, Madrilgo Kultura Ministerioan, etab. Praktika artistikoan, performanceak, instalazioak, bideoa eta argazkia lantzen ditu.*

Karga misteriotsuen pisuari eusten dioten animaliak, 2021. Bideo-proiekzio bikoitz batek eta hainbat objektuk osatutako instalazioa. Neurri aldakorra, 9 x 12 m gutxi gorabehera

Karga misteriotsuen pisuari eusten dioten animaliak, 2021. Bideo-proiekzio bikoitz batek eta hainbat objektuk osatutako instalazioa. Neurri aldakorra, 9 x 12 m gutxi gorabehera

Ikuspegi orokorra

ikuspegi orokorra

Ronsin impassea (Neurgailu konplexua +) c gorantz*, a 1,60ra* jaitsiz, 2021
Altzairu herdoilgaitza
182 x 28 x 80 cm.

Ronsin impassea (Neurgailu konplexua +) c gorantz, *a 1,60ra* jaitsiz, 2021
Altzairu herdoilgaitza
182 x 28 x 80 cm.

Itxurazko munduaren atzean legeen beste mundua, 2021
Hormako esku-hartzea galeria-bulegoko atearen gainean
280 x 158 cm.

Ikuspegi orokorra



L, to the lighthouse, 2021
Esku hartzea / zulatzea hormaren gainean. Neurri aldakorra.

Helping to levitate, 2021. Altzairu herdoilgaitza, egurra, bi aulki. 74 x 270 x 46 cm.

Helping to levitate, 2021. Altzairu herdoilgaitza, egurra, bi aulki. 74 x 270 x 46 cm.

Double help to levitate, 2021. Egurra, bi aulki. 74 x 230 x 46 cm.

Ikuspegi orokorra

Instalazioaren xehetasuna

Aurreikus daitekeena saihesteko 400 mugimendu, 2020. Bideo-instalazioa. 270 x 454 cm. Ed. 3

Ikuspegi orokorra

BEL UNICO Lacha 24, 2021. Zur zulatuzko eraikuntza (24 mm-ko kontratxapatua eta fenolikoa). 97 x 165 x 45 cm.

BEL UNICO Lacha 18, 2021
Zur zulatuzko eraikuntza (18 mm-ko kontratxapatua eta fenolikoa)
94 x 171 x 45 cm.

BEL UNICO Lacha 18, 2021. Zur zulatuzko eraikuntza (18 mm-ko kontratxapatua eta fenolikoa). 94 x 171 x 45 cm.

MostWanted C (West kaxa; kasu itxia). Convex corner piece, 2021
Altzairu herdoilgaitza
182 x 75 x 72,5 cm.

MostWanted C (West kaxa; kasu itxia). Convex corner piece, 2021. Altzairu herdoilgaitza. 182 x 75 x 72,5 cm.

Ikuspegi orokorra

BEL UNICO Zutunik (kop exterior), 2020
Altzairu herdoilgaitz zulatua
190 x 45 x 45 cm.

West kaxa (Neurgailu konplexua A), 2021. Altzairu herdoilgaitza. 182 x 28 x 45 cm.

Bel UNICO Horman 14 diestra (pointing left), 2021. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 14 x 45 x 190 cm.

BEL UNICO Horman 45 (Zurda kop down/pointing right), 2021
Altzairu herdoilgaitz zulatua
45 x 45 x 190 cm.

BEL UNICO Horman 45 (Zurda kop down/pointing right), 2021. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 45 x 45 x 190 cm.

Doble BEL UNICO 14. Lurzorua. (Bilateria kop out), 2020-21. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 190 x 14 x 94 cm.

Ikuspegi orokorra

Most Wanted L (West kasua/kaxa.), 2021
Altzairu herdoilgaitza
182 x 72 x 45 cm.

Ikuspegi orokorra

Most Wanted U (West kasua/Kaxa irekia) Concave corner piece, 2021
Altzairu herdoilgaitza
182 x 81 x 45 cm.

BEL UNICO 45 Gable roof (double kop up), 2020. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 190 x 45 x 45 cm.

Ikuspegi orokorra

BEL UNICO Horman 14 zurdo/a (pointing left), 2021. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 14 x 45 x 190 cm.

Ikuspegi orokorra

BEL UNICO Horman 14 zurdo/a (pointing right), 2021. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 14 x 45 x 190 cm.

BEL UNICO Horman 45 (Diestra kop up/pointing left), 2021
Altzairu herdoilgaitz zulatua. 45 x 45 x 190 cm.

BEL UNICO Horman 45 (Zurda kop up/pointing left), 2021. Altzairu herdoilgaitz zulatua. 45 x 45 x 190 cm.

EUBACM2021 (KARGA MISTERIOTSUAK-CARRERASMUGICA), 2021. Instalazio fotografikoa. 178 x 318 cm.

EUBACM2021 (KARGA MISTERIOTSUAK-CARRERASMUGICA), 2021 (xehetasuna)

EUBACM2021 (KARGA MISTERIOTSUAK-CARRERASMUGICA), 2021 (xehetasuna)

EUBACM2021 (KARGA MISTERIOTSUAK-CARRERASMUGICA), 2021 (xehetasuna)

EUBACM2021 (KARGA MISTERIOTSUAK-CARRERASMUGICA), 2021.
Instalazio fotografikoa.
178 x 318 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725